

“HARRIGARRIAK DIRA IKASLEEN ORIGINALTASUNA ETA IDEIAK”



Josune Murua | La Salle Berrozpe | Zikloak

Josune Murua La Salle Berrozpe (Andoain) ikastetxeko “Los Kukis” taldeko zuzendaria da, eta Kosmodiseako Ikono Planetan Zikloak kategoriako saria eskuratu du.

Nola jaso du taldeak Ikono Planetan jasotako saria?

Atsegin handiz. Egia esan, hein batean, Kosmodiseako fase honetan zehar egindako ahaleginek ordaina izan dutela ikusi dugu.

Lana egiterakoan, zer iruditu zitzaizuen zailena?

Hasiera. Lanari ekitea ez zen erraza izan, ezta, hasiera batean, taldeko kideen arteko koordinazio-lana ere. Baina proiektuan aurrera egin ahala, koordinazioa eta gauzak ongi egiteko gogoak hobetzen joan dira egunetik egunera.

2011-2012 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?

- 1.- Taldean lan egin eta antolatzea.
- 2.- Kosmodisea proiektutik proposatutako plataformako tresnak erabiltzea.
- 3.- Programa informatiko berriak erabiltzea, soinua, argazkiak eta bideo-irudiak lantzeko.
- 4.- Taldeko kide bakoitzaren sorkuntza garatzea. Egia esan, batzuetan, ikasleen originaltasun eta ideiek harritzen naute.

Eta zeintzuk dira jarduera honetan parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?

1.- Plataforma beraren tresnekin lanean zaudela sortzen diren akats informatikoak. Horrek, askotan, denbora galtzea eragiten du.

2.- Hasiera batean, ikasleak animatzea, Kosmodiseako proiektuarekin hasi ginenean ez baitzuten lan egiteko modu hau ulertzen.

Nola egiten diozue aurre Kosmodiseako gainerako ekimenari?

Ongi eta, denbora aurrera joan ahala, gogo eta ilusio handiagoz, eskatzen dituzten proiektuak garatzen goaz. Ikasleek ez dute nahi edonolako lana aurkeztu, ahalik eta hoberen egin nahi dute.

Beste urteetan parte hartu baduzue, zein ezberdintasun ikusten dituzu aurtengo eta beste urteetako edizioetan? Egokiak eta onuragarriak al dira Kosmodisearen funtzionamenduan txertatutako aldaketak?

Audioaren eta argazkiaren fasea elkartzea oso egokia iruditu zait. Ez zen beharrezkoa bi lanak bi fasetan banatzea.

Bestalde, onuragarria iruditu zait wikian egindako lana balioestea, eta duen garrantzia ematea, hor ikusten baita ondoren aurkeztutako lana nola joan garen antolatzen, plangintza egiten eta garatzen.